

## AURKEZPENA

Fabrikazio Aurreratu eta Digitalaren eta Makina-Erreminten Kongresuaren 22. edizioa Donostian izango da, **Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkean, 2019ko urriaren 23an, 24an eta 25ean.**

Kongresuan fabrikazio aurreratu eta digitalaren eremuko gaurko gai interesgarrienei buruzko hitzaldi teknikoak emango dira, eta parte-hartzaileen arteko konexioak eta lankidetzak sortzeko foro bikaina izango da.

## EGITURA ETA GAIAK

Kongresua ekitaldi hauen inguruan egituratuta dago:

- Zehaztutako gaien inguruan egituratutako hitzaldi teknikoetan oinarrituriko kongresu zientifiko-teknikoa (15 minutu aurkezpenerako eta 5 minutu galderetarako); kongresu honetarako, komunikazioak idazki honen bidez eskatzen dira.
- Dibulgazio-kongresua, fabrikazio aurreratu eta digitaleko teknologiek zerikusia duten industria-enpresen kezken inguruko hitzaldi interesgarriekin.
- Poster-atala, programa-batzordeak hautatuta.
- Programa-batzordeak zuzendutako eta dinamizatutako mahai-inguruak.
- *Networking*-ekitaldiak.
- Erakusketa-eremua.
- Ingeniaritza teknikoetako ikasle gazteentzako ekitaldi bereziak.
- Fabrikazio aurreratuko teknologiek zerikusia duten *start-up*entzako ekitaldi bereziak.

## GAIAK

Hauk izango dira kongresuaren **gaiak**:

- Makina-erremintak eta haien osagaiak
- Ebaketa-erremintak
- Fabrikazio-prozesu aurreratuak
- Fabrikazio gehigarria
- Fabrikazio-sistema adimendun eta moldatzaileak (trazabilitatea barne)
- Enpresa digital, birtual eta eraginkorrak («Digital Factory» barne)
- Gizakiaren eta makinaren arteko lankidetzak
- Fabrikazio jasangarria
- Bezeroarengan oinarrituriko fabrikazioa
- Trebakuntza eta talentua

Eremu hauetan dauden taldeentzako komunikazioei emango zaie **lehentasuna**:

- Ohiko eta ezohiko mekanizazioaren eta konformazioaren sektorea.
- Prozesuen automatizazioaren eta integrazioaren sektorea. Prozesuen automatizazioa, roboten integrazioa eta automatizazioa, etab.
- Automobilgintzari, aeronautikari, energiari eta trenbideari lotutako sektore erabiltzaileak.
- Automatizazioa eta soluzio «IKT-konektatuen» (*Industry 4.0*) integrazioa makina-erremintaren eremuan.
- Fabrikazio-prozesu berriak eta, bereziki, fabrikazio gehigarria.
- Prozesuen integrazioa fabrikaziorako soluzio zehatzetan, *test bedetan*, etab.

Gainera, gutxi gorabehera TRL  $\geq$  5 mailan dauden komunikazioak lehenetsiko dira.

**Sariak** emango zaizkie hitzaldi berritzaile esanguratsuenei: enpresa batek aurkeztutako hitzaldi berritzaileenari eta komunitate zientifiko-teknikoak kongresuan aurkeztutako komunikazio onenari, baita fabrikazioarekin zerikusia duen «eskola tekniko bateko karrera amaierako proiektu onenari» ere.

Enpresen parte-hartzea lehenetsiko da, bakarrik zein bazkide teknologikoez lagunduta egon, eskaintza eta eskari teknologikoaren arteko lankidetzaren agerian jartzen badute.

*Call for abstracts* honek batzorde zientifiko-teknikoak ebaluatzen duen kongresuaren programa teknikoa du xede. Horrez gain, kongresuaren antolatzaileek hitzaldi bereziak, «mandatuzko» hitzaldiak eta babesleen hitzaldiak kudeatuko ditu.

## KOMUNIKAZIOEN ARGITALPENA

Edizio honetan, berritasun gisa, kongresuaren antolatzaileek hizlariei aukera ematen diete beren komunikazioak 0,52 inpaktu-indizea (2017an) duen JCR aldizkari batean argitaratzeko. Hain zuzen, *Dyna* aldizkaria da, AFMk horrekin lankidetzak-akordioa egin baitu. Aldizkari horrek bai ingelesez bai gaztelaniaz idatzitako lanak onartzen ditu, ikerketa-eta garapen-eremukoak, adibidez, doktorego-tesietatik eta nazioko nahiz nazioarteko proiektuetatik datozen lanak. *Dyna* aldizkari arbitratua da, eta haren edukiak kanpoko adituek berrikusten dituzte, ebaluazio bikoitzeko prozesu baten bitartez (artikulua aldizkarian argitaratzeko arauak erantsi dira). Artikulua bidaltzean hura ebaluatu eta ondoren argitaratzeko, egileak Publicaciones Dynari lagatzen dizkio argitalpen-eskubideak, beste toki batzuetan argitaratzeko aukera galdu gabe.

Aurkezten den komunikazio bakoitza *Dyna* aldizkarian argitaratzeko aukera borondatezkoa eta hautazkoa da. Egile bakoitzak hartuko du dagokion erabakia eta aldizkarian argitaratzeko berariazko kostuak (450 €/artikulu) ordainduko ditu.

Kongresuko batzorde zientifiko-teknikoak ez du ebaluazioan kontuan izango aldizkarian argitaratuko den ala ez; aitzitik, komunikazioak 22. kongresuan aurkezteko ezartzen diren hautagarritasun-irizpideak soilik hartuko ditu aintzat.

## KOMUNIKAZIOEN BETEKIZUNAK

Hizlariak honako hau izan beharko du kontuan:

- Lehenengo aldiz argitaratuko diren lanak soilik onartuko dira.
- Hizlariak kongresuaren antolatzaileei lagatzen dizkiete egile-eskubideen jabetza.
- Bereziki zaindu beharko da komunikazioak komertzialak ez izatea eta publizitate-edukirik ez edukitzea. Hala ere, logikoa denez, ez dago oztoporik ikerketak egin dituzten edo ikertzaileak kide diren enpresen edo marken izenak agertzeko.
- Komunikazioek jada konponduta dauden edo konpontzeko bidean dauden industriaren arazoak izan behar dituzte hizpide.
- Komunikazioan jasota egon beharko du lanaren aplikagarritasun praktikoak.

## PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

Kongresuaren edizio honetan hizlari gisa parte hartzeko interesatuta daudenek erantsitako inprimakia bete beharko dute, eta **2019ko urtarrilaren 31** baino lehen helbide honetara bidali: **[koro.etxeberria@afm.es](mailto:koro.etxeberria@afm.es)**.

Batzorde zientifiko-teknikoak proposamenak aztertuko ditu eta, 2019ko otsailaren 28a baino lehen, behin-behineko onarpena jakinaraziko du.

INPRIMAKIA BETE